

## ESPEZIALITATE PROGRAMAGARRIEI BURUZKO JAKINARAZPENA, OKUPATUEN 2018-2020 DEIALDIA

Okupatuen 2018-2020 deialdiko espezialitate programagarri guztiak Espezialitateen Katalogoan daude jasota.

Orain arte, aurreko deialdietarako, programatzen diren ikastaroen erantzukizunpeko adierazpenak katalogoz kanpoko espezialitatetzat programatzen ziren.

Aldiz, deialdi berri honetarako, espezialitate programagarrietan inskribatu ahal izateko erantzukizunpeko adierazpena katalogoko espezialitatetzat egin behar da.

Erantzukizunpeko adierazpena katalogoz kanpoko espezialitatetzat egiten bada edo dagoeneko katalogoz kanpo inskribatuta badago, ezin izango da onartu, ezta % 15aren barruan ere. Izan ere, planean aurkezten diren ekintza guztiak katalogoko espezialitatetzat inskribatuta eta/edo egiaztatuta egon beharko dute.

Prestakuntza-erakunde bakoitzak ikusteko aukera du bere prestakuntza-planean alta eman dien ekintzak espezialitate programagarrietan sartuta dauden, % 15aren barruan dauden edo inskribatuta eta/edo egiaztatuta ez dauden.

Horregatik:

- “Eskaera mota” ekintzen zutabeen “espezialitate erregistratua” adierazten bada eta “2018ko espezialitate programagarrien katalogoan sartua” zutabeen “bai” agertzen bada, espezialitate programagarrien barruan dago eta onargarria da.

- “Eskaera mota” ekintzen zutabeen “espezialitate erregistratua” adierazten bada eta “2018ko espezialitate programagarrien katalogoan sartua” zutabeen “ez” agertzen bada, askatasunez aukeratzeko % 15aren barruan dago eta onargarria da.
- “Eskaera mota” ekintzen zutabeen “erregistratu gabeko espezialitatea modalitate eta lurralde honetarako” adierazten bada eta “2018ko espezialitate programagarrien katalogoan sartua” zutabeen “bai” edo “ez” agertzen bada, ez dago inskribatuta/egiaztatuta eta, hortaz, ezin da onartu (berdin espezialitate programagarrietarako edo % 15erako).

Hobetuz Fundazioaren web-orrian eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren atarian argitaratutako espezialitate programagarrien FITXATEGI OROKORREAN, Euskal Autonomia Erkidegoko langile okupatuei lehentasunez zuzendutako 2018-2020 prestakuntza-eskaintza finantzatzeko diru-laguntzen deialdiko 3-1 artikulua araberako (2018ko uztailaren 5eko EHAA), “ESPEC.DEC.RESPONS” orrian agertzen diren espezialitateen 2.215 kodea falta da.

2018/07/19tik aurrera, guztien kodea jasotzen duten espezialitate programagarrien FITXATEGI OROKOR berria agertzen da. Beren prestakuntza-planean orri horri dagozkion espezialitateak eskatu ez dituzten eta aurretiaz inskribatuta ez dituzten edota koderik gabe inskribatu dituzten erakundeek erantzukizunpeko adierazpen bidez inskribatu beharko dituzte, bakoitzari dagokion kodea aplikatuta.

Gogorarazten dizugu erantzukizunpeko adierazpena telematikoki egiten dela, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren web-orrian dagoen estekaren bitartez: <https://rlanbide.lanbide.net/formacion/pub/decRble.seam?idiomaPub=1#no-back-button>.